OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA
IDAZKARITZA
DATA 2021 IRA 22
ALKATE DEKRETUEN LIBURUA
ZKIA. 961

OÑATIKO UDALA

# ALKATE DEKRETUA

**Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:**

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LAN POLTSA bat eratzeko Balorazio Batzordeko kideak izendatzea.**

2021eko martxoaren 18ko alkate dekretuaren bidez, Administrazio Orokorreko Teknikari lan-poltsa eratzeko deialdia eta oinarriak onartzea erabaki zen. Izena emateko epea 2021eko martxoaren 26an amaitu zen (egun hori barne).

2021eko martxoaren 31ko 336. Zenbakidun Alkate Dekretu bidez, ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LAN POLTSA bat eratzeko deialdira aurkeztutako hautagai onartuen eta baztertuen zerrenda onartu zen. Bertan, hautaketa-prozesu honetako Balorazio Batzordeko kideak izendatu ziren:

Batzordeburua:
Begoña Alkorta Yarza, Oñatiko Udaleko AOT

Batzordekideak:
Antton Rivero Urbistondo, Tolosako Udaleko AOT
Iñaki Landa Azkoaga, Oñatiko Udaleko Hirigintzako arduraduna
Oscar Carrascal Gonzalez, Oñatiko Udaleko Kiroldegiko zuzendaria

Idazkaria:
Beatriz Etxeberria Osoro, Oñatiko Udaleko administraria.

2021eko apirilaren 14ko 357. Zenbakidun Alkate Dekretu bidez, ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LAN POLTSA bat eratzeko deialdira aurkeztutako hautagai onartuen MERITUEN BEHIN-BEHINEKO BALORAZIOA onartu zen.

Behin behineko balorazioren aurka zenbait erreklamazio aurkeztu ziren:

- **.*35.11** , sarrera erregistroa 2021/2270, 2021/06/17koa.
- **.*0255** sarrera errigistroa 2021/1499, 2021/04/19koa.
- **.*35.11** , sarrera erregistroa 2021/1489, 2021/04/19koa.
- **.*16.63** , sarrera erregistroa 2021/1469, 2021/04/19koa.
-

Ikusita, Begona Alkorta ez duela orain udaletxean lan egiten, Beatriz Etxeberria ekainaren 1etik lanerako aldi baterako ezintasuna duela eta Giza baliabide departamenturako aldi baterako programaran kontratatutako lankidea ere, lanerako ezintasuna duela.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Oñatiko Alkate naizen honek, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honen bidez

## ERABAKI DUT

**Lehenengoa.-** Hautaketa-prozesu honetako Balorazio Batzordeko kidea berriak izendatzea, aurkeztutako erreklamazioak ebazteko eta behin betiko balorazioa egiteko:

Batzordeburua:
Iñigo Roldan Catalan, Oñatiko Udaleko Idazkaria

Batzordekideak:
Oihane Mallagaray Revilla, Oiartzun Udaleko Giza baliabideen arduraduna.
Iñaki Landa Azkoaga, Oñatiko Udaleko Hirigintzako arduraduna
Oscar Carrascal Gonzalez, Oñatiko Udaleko Kiroldegiko zuzendaria

Idazkaria:
Ainara Osoro Txurruka, Oñatiko Udaleko administraria.

**Bigarrena**.- Erabaki hau iragarki-taulan eta www.onati.eus webgunean argitaratzea.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.**

**Oñatin, 2021eko irailaren 21ean.**

**ALKATEAK**

**Izaro Elorza Arregi**